

Prensa oharra

Nota de prensa



Udalak 106 plaza onartu ditu 2023ko LEPrako

Udaltzaingorako 41 plaza, Suhiltzaileentzako 16 plaza eta hainbat arlo tekniko eta administratibotarako 49 plaza

Tokiko Gobernu Batzarrak onartutako beste gai batzuk: Harria parkeko estalkia, Jesús María Alkain plaza

Donostiako Udalak 2023ko Lan Eskaintza Publikoa onartu du hainbat eremutako 106 plaza eskuratzeko. Eskaintza honen bidez, enplegua egonkortzeko eta erakundearen behin-behinekotasuna murrizteko ildoan jarraitu nahi da. Plaza horietatik 101 txanda irekikoak dira, hau da, Udaleko funtzionario izan gabe sartu ahal izango dira, eta 5 barne sustapenekoak, enplegatu publikoen ibilbide profesionala garatzeko.

Txanda irekiko 101 plazak, honako hauek dira: Udaltzaingorako 41 plaza, Suhiltzaileentzako 16 plaza, administrari 8 plaza eta Mugikortasuneko agente izateko beste 8 plaza dira. Gainera, eskaintza publikoaren bidez, behin betiko betetzea eskatzen duten hainbat eremu daude: Administrari orokorreko teknikarien 2 plaza, Psikologo plaza 1, Ekonomia adarreko goi mailako teknikarien 2 plaza, Arkitekto plaza 1, Albaitari plaza 1, Arkitekto teknikoaren plaza 1, Obra publikoetako ingeniari teknikoaren plaza 1, Gizarte laneko teknikarien 3 plaza, Eskola eraikinetako arduradun plaza 1, Eskulangileen 2 plaza, Enpresa medikuaren plaza 1, Goi mailako teknikari plaza 1, Enpresa erizainaren plaza 1, Teknikari laguntzailearen plaza 1, Basozain plaza 1, Obretako teknikari laguntzailearen 3 plaza, Erdi mailako teknikarien 5 plaza.

Eskatzen diren titulazioak eta hizkuntza eskakizunak lanpostuaren berezitasunaren arabera aldatuko dira.

Eskaintako plaza guztien % 7, hau da, 7 plaza, **desgaitasuna** duten pertsonak betetzeko gorde dira, eta horietako bi (% 2) adimen desgaitasuna egiaztatzen duten pertsonak betetzeko. Une honetan, bi lanpostu betetzeko deialdia irekita dago, desgaitasun intelektuala duten pertsonentzat.

Barne sustapenari dagokionez, 5 plaza aterako dira (SPEISeko ikuskatzaile buruaren plaza 1, Suhiltzaile kaboaren plaza 1, Udaltzaingoko ofizialordearen 3 plaza); eta hori aukera bat da langileek beren karrera profesionalean aurrera egin dezaten.

106 plazak eskuratzeko prozesuak deialdi bakoitzaren **oinarrietan** zehaztuko dira, eta **izena emateak** Udalaren webguneko enplegu atarian (www.donostia.eus) eta udaletxean bertan egin ahal izango dira.

Une honetan, Udalak 30 prozesu baino gehiago ditu martxan, horietatik 22 egonkortzekoak. Gainera, zabalik dago A2 azpitaldea egonkortzeko hainbat

Prentsa oharra

Nota de prensa

prozesutarako eskabideak aurkezteko epea. Prozesu horietarako izen emateak web orriaren bidez egin daitezke, 2023ko ekainaren 28ra arte.

2024. urtea amaitu aurretik, Udalak hainbat kategoriatako 59 egonkortze prozesu egiteko erronka du; guztira, 207 lanpostu egonkortuko dira.

Garrantzitsua da nabarmentzea hautaketa prozesua gainditu arren plazarik lortzen ez duten pertsonak ordezkapen zerrenda batean sartuko direla, hutsik geratzen diren postuak edo aldi baterako beharrak betetzeko. **Lan poltsa** horiek beste administrazio publiko batzuei ere utzi ohi zaizkie batzuetan, langileak behar dituztenean.

Horregatik, plaza horietara aurkeztea aukera paregabea da langile publiko gisa lan egin nahi dutenentzat, plaza lortu ez arren, Udalean edo beste administrazio publiko batzuetan lan egiteko aukera izan baitezakete etorkizunean. Kasu honetatik kanpo utzi behar dira lehiaketa bidezko egonkortze prozesuak, ez baitira lan poltsarik sortuko.

Harria parkearen estalkia

Tokiko Gobernu Batzarrak Altzako Harria parkean haurrentzako jokoen gaineko ehunezko estalkia egiteko proiektua onartu du, 277.460 euroko aurrekontuarekin.

Proposamenak inguruan dagoen haurrentzako jolas-gunea estaltzeko beharra du abiapuntu, 16x8 metroko azalera duena. Jokoak euritik behar bezala babesteko, jolas-gunea baino neurri handiagoko ehun estalkia egitea planteatzen da. Estalitako espazioak 180 m²-ko (18x10m) azalera izango du oinplanoan, eta perimetroan dagoen zuhaitziak baldintzatuko ditu mugak.

Jesus Maria Alkain Plaza

Tokiko Gobernu Batzarrak Jesus Maria Alkain plaza urbanizatzeko proiektuari dagozkion obrak kontratatzeko espediente onartu du. Obrak egiteko aurrekontua 752.885 eurokoa da eta burutzeko epea 4 hilabetekoa.

Ikuspegi formaletik, proiektuak bi berdeguneren arabera antolatzen du espazioa, eta espazio horien geometria likidoaren bidez, plazan sortzen diren egoera ugari erantzun diezaiekete. Horrela, lotura argia sortzen da, baina ez zuzena, dagoen plazarekin; izan ere, proiektuaren hizkuntza formalari nabarmen eragiten diote plazan dauden lerro kurboek. Geometria berde horiek koherentzia formal sendo eta argia ematen diote plazari, baita estetika natural eta alaia ere.